

AGURRA

Asteburuan eman zidaten albisterik txarrena. Zure heriotzaren berri jaso nuen dei baten bitartez.

Ezusteak negarrari eman zion paso. Eta tristurak, haserreari. Eta horrela sentitzen naiz hil zarela jakin dudanetik.

Triste eta haserre nago.

Ez da bidezkoa horren goiz joan izana; orain, justu, erretiroa disfrutatzen hasi behar zenuenean...

Bizitzaren ironia:

Egun hauetan hasiak ginen zure agurra prestatzen. Adostuta genuen Karmelo eta Txaro institutura etorriko zirela abenduaren 20an, eta hamaiketako ederra prestatu behar genizun, opari batzuekin batera. Maria Kristina hotelean desio zenuen gosaria oparitu nahi genizun. Pozik geunden denok zuregatik, behingoan, merezitako jubilazioa disfrutatu behar zenuelako. Nola igaro gaitezke, beraz, pentsatuta genuen agur goxo eta desiratu horretatik, betiko agur honetara..?

Nola esan ahal dizugu agur, MCarmen...?

Izaki Gardenak taldeko abestiak dioen moduan: “Ikusten nauzu, baina jada ez nago hemen”.

Hori da, bai, baina alderantziz esango nuke:

Joan zara dagoeneko, baina zu ikusten jarraituko dugu.

Zure irudia eta zuk utzitako aztarna barru-barruan daramagu eta hortxe gordeta iraungo du gurekin bakoitzarekin.

Horregatik, gaurko egunean, tristura eta haserrea gainditu nahiko nituzke zuri ESKERRAK emateko. Ziur naiz, gainera, nire hitz hauek guztion izenean esan ahal ditudala:

Eskerrik asko, MCarmen, erdua izan zarelako guztiontzako, EREDUA letra larritz.

Ez dugu uste irakasle asko egongo direnik zu baino zintzoagoak. Zintzotasuna eta honestitatea, bikain definitzen zaituzten hitzak.

Zure ondoan lan egitea, plazer handiaz gain, ikasprozesurik onena izan da. Horrenbeste irakatsi diguzu...

Zeinen pertsona jakintsua eta kultua zu, MCarmen!

Eta ez dugu bakarrik esaten kimikaria zinelako eta matematikako irakaslea ere bai. Ikasketaburu eta zuzendari bikaina izan zinen zalantza izpirik gabe! Horretan ere ona. Zeinen erraz erantzuten zenien egunerokotasunean suertatzen ziren arazo desberdinei. Beti lasai, elegante, urduritu gabe, zintzotasunez.

Izugarrizko lana egin zenuen Zabalgana institutuan. Zuk eraiki zenituen gaztea den institutu honetako zimenduak eta zure inpronta jarri zenuen behar beharrezkoa zen garaian.

Ezin hobeto ezagutzen zenuen institutu baten funtzionamendua eta engranajea, piezaz pieza. Eskola sistema bera ere sakon ezagutzen zenuen, legeria guztiak barne. Harrituta uzten gintuzun!

Argi dago arrastoa utzi duzula, baina arrastoa, batez ere, giza mailan. Izan ere, lehen aipatu ditudan lan kontu guztien gainetik, zure izaera azpimarratu behar dugu. Sentsibiltate handia zenuen, besteen arazoen aurrean ulerkor agertzen zinen beti, kasu bakoitzean behar genuena ematen. Bihotzez eskertzen dizugu guregatik egin zenuen guztia.

Joan zara, MCarmen, baina zuk emandako guztia hemen geratzen da, institutu honetan eta Zabalgana osatzen dugun pertsona guztion baitan.

Izugarri botako zaitugu faltan, MCarmen!

Eskerrik asko emandako guztiarengatik eta beti arte!

Miren